



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2023ko abuztuaren 1ekoa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Basalur SL enpresak Galdakaoko (Bizkaia) udalerrian sustatutako hondakinak eta bigarren mailako materialak biltegitratzeko eta kudeatzeko zentroaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2023ko apirilaren 24an, Eusko Jaurlaritzaren Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuko Zerbitzuak eskatu zuen Basalur SL enpresak Galdakaon sustatutako hondakinak eta bigarren mailako materialak biltegitratzeko eta kudeatzeko zentroaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua emateko, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoa betez.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68.1 artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Dekretuaren 34. artikuluan. Horien emaitza espedientearen dago jasota. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari izapidea hasi zela jakinarazi zitzaion.

Halaber, espedientearen jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikulua dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea hau da: proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, proiektu horiek ingurumenean ondorio nabarmenak izateko arriskua dakartenean, ingurumenaren babes-maila handia bermatzea eta garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie arau horren II.D eranskinean zerrendatutako proiektuei. Ebazpen honen xede den proiektua aipatu II.D eranskinaren D8 taldeko 8.e egoeran jasota dago: «*Etxe-hondakinak edo industria-hondakinak kudeatzeko lanetan sortzen diren hondakin ez arriskutsuak, hondakin geldoak izan ezik, hartzen dituzten zabortegiak. Bestelako hondakin ez arriskutsuen edo edozein eratako hondakin geldoen zabortegiak, egunean 10 tona edo gehiago jasotzen badituzte eta guztira 25.000 tonako edo gehiagoko edukiera badute*».

Halaber, Basalur SLk Galdakaon sustatutako hondakinak eta bigarren mailako materialak biltegitratzeko eta kudeatzeko zentroaren proiektua Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31. artikuluan ezarritako ingurumen-baimen integratuaren araubide juridikoaren mende dago, egunean 10 tona baino gehiago jasotzen dituen edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera duen zabortegia baita, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I.A eranskineko 5.5 egoeran jasota dagoena.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela formalki egiaztatu ondoren, ingurumen-organoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-



dokumentua egin dezan, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ondoren.

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean zehaztutako eskakizunak hartu dira kontuan.

Hori alde batera utzi gabe, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23. artikuluan jasotako aurreikuspenak aplikatuz, integratu egingo dira ingurumen-baimen integratuaren araubideari dagozkion administrazio-prozedura eta ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioaren prozedura. Gainera, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukia ingurumen-baimen integratuaren parte izango da, eta bi erabakiak administrazio-egintza berean emango dira. Hartara, prozedura biak behar bezala integratzeko, eta sustatzaileak agiri berak bi aldiz bidaltzea saihesteko, dokumentu integratua sortu beharko da, Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana izenekoa. Horrekin lotuta, ingurumen-baimen integratua eskatzeko proiektu teknikoaren dokumentazioa osatzeko, barne hartu beharko dira ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araudian ezarrita dauden alderdiak.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Basalur SL enpresak Galdakaon sustatutako hondakinak eta bigarren mailako materialak biltegitzeko eta kudeatzeko zentroaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, honako baldintza hauetan:

1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak:

Proiektua hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko zentro bat egitea datza; haatik, sustatzaileak bidalitako dokumentazioaren arabera, baliteke, zehaztu ez diren egoera jakin batzuetan, hondakin arriskutsuak ere kudeatu ahal izatea.

Proiektua betelan zahar baten gainean dago, Basabe inguruan, Goikoerreka ibaiak zeharkatzen duen haranean, Galdakaoko udal-mugarteko lurretan.

Azpiegiturara sartzeko Aranzalaiko hormigoizko bidetik joan behar da, BI-3732 errepidetik hasten dena, Galdakaoko Uraburu auzoaren parean.

Aurkeztutako dokumentazioaren artean, instalazioan onartzen diren hondakinen zerrenda orokor bat dago, hondakin horien EHZ kodea eta egingo den operazioa adierazita. Hondakin horiek, oro har, honako hauek lirateke: galdaketako zepak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak, igeltsuak, moldekatze-hondarrak, erregogorrak, lurzoru kutsatuak eta/edo zuntz-zementua.

Kudeaketarako bost jarduera-eremu planteatzen dira, balorizazio- eta ezabaketa-operazioetan:

- Hondeatutako materialen kudeaketa (EHZ 170504) (APM/1007/2017 Agindua, urriaren 10ekoa, Hondeatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorrei buruzkoa).
- Jada beste instalazio batzuetan tratatuak diren hondakin balorizatuak (eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak –EEH–, zepak edo beste batzuk) aldi baterako metatzea, baldin eta horiek biltzeko arazoak badituzte espazio faltagatik, eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekaren ondorioz (EEHak, zepak edo beste batzuk).
- Tratatu arte aldi baterako biltegitratzea behar duten beste hondakin batzuk metatzea, hala nola ekoizpen atomizatua edo denboran etena duten hondakinak (industria-prozesuak, inbentariatutako lurzoruen indusketa-planetatik datozenak, edo beste batzuk).

- Egun balorizatzeko modurik ez duten hondakinak kudeatzea, eta, horretarako, gaitutako espazio konfinatutik kentzea, aurrerapen teknikoak hori egitea ahalbidetzen duen unera arte bere horretan uzteko helburuarekin. Horien artean honakoak daude: moldekatze-hondarrak eta hondar asimilagarriak, zepak eta prozesu termikoetako errautsak, igeltsua, tratamendu-plantetako hondakinak (errefusak) eta zuntz-zementua.
- Industria-eskalan balorizazio-proiektu berriak egiteko gunea (substantzia organikoak berrerabiltzeko prestatzea, plastikoen biodegradazioa, beste batzuk).

Jarduerak hartutako azalera osoa 316.173 m² da. 3 eremu handitan banatzen da:

Balorizazio- eta biltegiatze-eremua

Alde batetik, hondakinen bereizketarako eta balorizazio fisiko-mekanikorako eremua hartzen du, eta, bestetik, hondakinak isurtzeko gelaxkak jarriko diren biltegiatze-eremua. Hondakin horietako batzuk aldi baterako biltegiatuko dira, berriro merkaturatzeko, baldin eta eskaririk badago eta balorizatzeko aukerarik badute. Bestela, zabortegean geratuko dira betiko.

Proiektuaren hasierako dokumentuaren memoriaren arabera (aurrerantzean, PHD), balorizazio- eta biltegiatze-eremuak, guztira, 199.200 m²-ko azalera hartzen du. Aitzitik, PHDko planoetan adierazten da azalera hori 197.600 m²-koa izango zela, eta horietatik 10.600 m² hondakinak jasotzeko eta bereizteko eremuari dagozkiola, 11.823 m² balorizazio-instalazioari, eta gainerakoa isurketa-gelaxkei. Ingurumen-inpaktuaren azterketan zuzendu egin beharko da itxurazko desadostasun hori.

PHDaren memoriaren arabera, hidraulikoki independenteak diren bi gelaxka eraikiko dira balorizazio-jarduerako azpi produktuak sailkatzeko eta biltegiatzeko. Dena den, aurkeztutako planoetan kudeaketako lau gelaxka agertzen dira, bete ahala handitu egingo direnak. Gelaxka horiek zazpi fasetan handitu eta zigitatuko dira. Aurreko kasuan bezala, zuzendu egin beharko dira dokumentazio idatziaren eta dokumentazio grafikoaren arteko desadostasunak.

Ustiapenaren 7. fasean, gelaxkak betetzeko prozesuaren amaieran, balorizazio-eremua handitu egiten da, eta bi plataforma sortu dira: bata, 25.900 m²-koa, aurretik 1. eta 2. betetze-gelaxkak handitzeak okupatutako eremuetan; bestea, 11.500 m²-ko azalerakoa, 4. kudeaketa-gelaxka handitzeko plataformaren gainean, aipatu gelaxkak zigitatu ostean.

Harrera-gunearen ondoan, azpiegitura osagarri gisa, instalazioak honako hauek izango ditu: sarbidea kontrolatzeko etxola, baskula, bulegoak eta tailerra.

Lurzoru-erreserbako eremua

PHDen memoriak adierazten du lurzoru-erreserbako eremu bat ezartzen dela, 77.600 m²-ko azalerakoa, ibarbidearen hondoan, bai eta ekialdeko hegalarren zati bat ere, etorkizuneko beharretarako edo azpiegitura handitzeko erreserba estrategikoa izango dena. PHDaren planoen arabera, *a priori*, eremu hori lehen deskribatutako balorizazio- eta biltegiatze-eremuaren barruan sartuko litzateke, eta hasierako isurketa-gelaxkak handitzearekin okupatuko litzateke.

Ingurumen-moteltzeko eremua

116.973 m² hartzen ditu. PHDaren arabera, landaredi autoktonoko eratzun berde bat egongo da, biltegiatze- eta kudeaketa-azpiegitura inguratuko duena.

2.500 m²-ko plataforma bat eraikiko da biltegiatze-eremuaren oinean, lixibiatuak, euri-urak eta ur sanitarioak tratatzeko instalazioa jarriko den lekuan. Planoen arabera, lurzoru-erreserba horrek 2.100 m² hartzen ditu, eta ingurumen-moteltzeko eremuan kokatuko litzateke.

Balorizazio-instalazioa

Instalazioaren sistema orokorra urrats hauek osatuko dute:

- Harrera eta deskarga: materialak instalazioan sartzean, eskuz bereiziko dituzte hondakinak, tamaina handiko materialak eta ezpurutasunak kenduta. Fase honetan, zuzenean erabil daitezkeen harrizko materialak ere bereizten dira (harri-lubeta).

- Ateratako frakzioa birrintzeko, ehotzeko eta bahetzeko prozesuari ekingo zaio, eta materiala merkatuko beharren arabera sailkatuko da; ondoren, materialak metatu egingo dira.

Eremu horretan, ekipo hauek instalatu behar dira: elikatze-tobera bat, bereizgailu magnetikoa, xehamakina eta bahea.

Gutxi gorabehera, urtean 100.000 tona har ditzakeela kalkulaten da, kontuan hartuta egunean 8 orduko etengabeko funtzionamendu-erregimena dagoela aldi aldakorretan, materialaren eskuragarritasunaren arabera.

Zaborteia

PHDaren memoriaren arabera, zaborteiak hidraulikoki independenteak diren bi gelaxka ditu, 100.000 m³/urte inguruko edukiera dutenak, egunean 8 orduz funtzionatuko dutela kontuan hartuta. 893.623 m³-ko gaitasuna du, beraz. Planoen arabera, 4 isurketa-gelaxka daude. Zaborteia egokitzeko eragiketak honako hauek dira:

1. Ezpondak eta gelaxken hondoa iragazgaiztea

Lursailarekin kontaktuan, hesi hidrauliko gisa jardungo duten geosintetikoak instalatuko dira, eta, ondoren, lixibiatuak drainatzeko elementuak.

2. Drainatze- eta bilketa-sarea eta lixibiatuen tratamendua

Euri-uren drainatze-sarea, bertan dauden hormigoizko arekek eta zorroten mailakatuek osatutako kanalizazio perimetral batek osatzen du. Euri-urak dekantazio-putzu batera bideratuko dira, ibilgu publikora isuri aurretik gardentzeko.

Ontziaren hondoa mantu bat dago, material pikortsu drainatzailekoa, 50 cm-ko lodierakoa, hodiak sardinezurka jarrita. Mantu drainatzailea babesteko, ustiapenak aurrera egin ahala, bereizte- eta iragazte-geotestil bat zabalduko da, drainatze-geruza ez dadin xehez lohiz bete.

Alboetako drainatzea konpresioarekiko erresistentzia handia duen drainatze-geokonposatu baten bidez eta lixibiatua bermaren alboetara bideratuko duten ezponden oinean dagoen drainatze frantses baten bidez konpontzen da; bertatik, kolektorera konektatuko dira.

Isurketa-gelaxkan sortutako lixibiatuak bi plataformen beheko puntuan biltzen dira, kutxatila bat dagoen tokian. Puntu horretatik aurrera, lixibiatuen kolektore bat eta tarteko erregistro batzuk daude, mantentze-lanak egitea ahalbidetzen dutenak.

Proiektuak prozesuko ur-korronte bakoitza modu berezian tratatzea aurreikusten du. Parametro-aldaketa handiena duten lixibiatuentzat, aurretratamenduak egiteko instalazio bat izango du, lixibiatuek dakartzaten arazoak konpontzeko berariaz diseinatua.

Prozesu desberdinetatik ateratako fluxuak saneamendu-sarera bideratuko dira, kolektorearen bitartez, eta organo eskudunak (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa) baimena eman ondoren isuriko dira.

Komunetatik/aldageletatik eta/edo laborategitik datozen hondakin-ur sanitario edo beltzak hainbat adarretan bilduko dira, eta kolektoretik saneamendu-sarera bideratuko dira.

3. Gas-sarea

Desgasifikazio-sarea gelaxkaren ustiapen-fasean eraikitako putzu bertikal batzuek osatzen dute. Putzu horietan biltzen dira biltegitratutako materialek jasaten dituzten prozesu fisiko-kimikoek sortutako gasak. Gasen konposizioaren arabera, tratamendu-teknologia hauetako bat aukeratuko da:

- Metanoaren oxidazio-gelaxkak.
- Zaborteigiko gasak erretzea (energiarik sortu gabe).
- Zaborteigiko gasak erretzea (energia sortuta).

4. Zigitatze-segida

Zigilatze-segida bat egotea aurreikusten da biltegitratze-eremua lohiz betetzen bada eta bildutako materialek ez badute irtenbiderik. Zigilatze-soluzioa osatzen duten materialen segida honako hau da, goitik behera:

- Errefortzu-geosarea (GGR), ezpondetan bakarrik.
- Euri-uren drainatze-geokonposatua (GCO).
- HDPE geomintza (GBR-P).
- Bentonitazko geokonposatua (GBR-C).

Alternatiben azterketa

Baztertu egiten da 0 alternatiba edo jarduketarik ez egitekoa; izan ere, alternatiba horrek bigarren mailako materialak kudeatzeko eta biltegitratzeko azpiegitura bat ez ezartzea ekarriko luke, eta, beraz, ez litzateke kudeaketa-zerbitzurik aurkeztuko balorizazio-instalazioetan, eta, hala, material gehiago ezabatuko lirateke.

Behin 0 alternatiba edo jarduketarik ez egitekoa baztertuta, PHDa betez, zabortegia egon daitekeen balizko kokalekuak baztertzeko prozedurari ekin zaio. Lehen fasean, ingurumena babesten duten figurak dituzten lurralde-eremuak ezetsi dira (naturagune babestuak, hezeguneak, onartutako kudeaketa-planak dituzten flora- edo fauna-espezieak banatzeko interes bereziko eremuak, plan hidrologikoetako eremu babestuak, babes bereziko eta ertaineko kultura-ondasunak).

Bigarren baztertze-maila aplikatzea proposatzen da modu argian lehentasunezko hondakin-korronteen jatorriaren eta kudeaketa-eremuaren eta ondoriozko bigarren mailako materialen eskariaren artean hurbiltasunik ez dagoela identifikatzen den eremuetan, material horiek garraiatzeak dakarren ingurumen-inpaktua minimizatzen saiatzeko.

Prozesu hori egin ostean, Galdakaoko udalerrian 3 kokaleku-alternatiba aztertu dira. Udalerrri hori hautatzea justifikatuta dago, bertan ez dagoelako naturagune babesturik, komunikazio-nodo batean dagoelako, hondakinak sortzen diren eta material eskaera dagoen eremu batetik hurbil dagoelako (Bilbo Handia kasu), eta bete daitezkeen lurzoruen eta eremu degradatuen gida-plan bat duelako.

Kokalekuak hautatzeko baliatutako irizpideen artean, lehendik degradatuta zeuden eremuak lehenetsi dira, bai eta industria-isurketak onartzen dituzten kolektoreetatik eta/edo HUAetatik hurbil dauden kokalekuak ere. Hala, honako kokaleku hauek aztertu dira:

- 1. alternatiba: Erletxe eremua.
- 2. alternatiba: Trokako erreka.
- 3. alternatiba: Basabe erreka.

Azkenean, 3. alternatiba aukeratu da: Basabe erreka.

Ingurunearen ezaugarri aipagarriak

Proiektua Galdakaoko udal-mugarrean (Bizkaia) garatzen da, Basabe izeneko inguruan, Uraburuko golf-zelaitik gertu, lur-betelan bat dagoen leku batean –2004an baimendu zen, eta 2015ean salatu eta geldiarazi egin zen, baimendu gabeko isurketak identifikatu zirelako–. Egun, honakoak daude bertan: lur-isurketak, obra-hondakinak, altzariak eta zepen arrastoak.

Jarduera egiten den eremua Goi Kretazeoko materialez osatuta dago; nagusiki, kare- eta silize-lutitez, ale oso fineko hareharri ilunez eta, tokian-tokian, ale lodiko hareharriz eta sumendi harri bolkanoklastikoz.

Material horiek iragazkortasun txikia dute, luzaroan irauten dute eta biltegitratze-ahalmen txikia dute. Hareharrizko eremuetan, porositateagatiko iragazkortasuna ertaina da.

Zabortegia ibarbide batean dago, eremuaren barruan bat egiten duten eta Basabe erreka osatzen duten bi adarrekin, zeina Ibaizabalen ibaiadarra den. Basabe errekaaren egoera hobetu egin behar dela irizten da bisoi europarra (*Mustela lutreola*) hedatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan espezie hori kudeatzeko Planaren arabera.

Gaur egun eremuan dagoen landaredia, funtsean, landare-espezie inbaditzaileek eta txilardiek kolonizatutako baso-landaketei eta eremu antropizatuei dagokie; txilardiek Batasunaren intereseko habitata osatzen dute: BIH 4030 *Ulex sp* nagusi den txilardi atlantikoa.

Izendatutako espezie horiez gain, geoEuskadi bisorean errekaen ondoan hostozabalen orban bat ikusten da, bai eta hariztien este eremu batzuk ere, hasierako dokumentuan kontuan hartu ez direnak.

Ez dago uholde-arriskurik inguruan. Hasierako dokumentuaren arabera, hondakinak kudeatzeko instalazioa betelan zahar baten gainean dago, eta azalera horrek, kutsatuta egon daitezkeen lurzorua izan ditzakeenak, 88.100 m² eduki ditzakeela kalkulatzen da. Eremu hori ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan, geoEuskadin eskuragarri dagoena.

Balizko inpaktuak

Hasierako dokumentuaren arabera, hauek dira sortutako inpaktuak:

- Paisaia aldatzea.
- Prozesuko lixibiatuak sortzea.
- Atmosferara isuritakoak: hautsa, partikula esekiak.
- Zarata eta bibrazioak.
- Arrisku geoteknikoak: asentu diferentzialak eta ezegonkortasuna.

Aztertutako dokumentazioaren arabera, aurreikusitako inpaktu guztiak gutxitu egin daitezke neurri zuzentzaileak hartuta. Gainera, proiektua betelan zahar batek degradatutako eremu bat hobetzeko esparruan garatzen denez, azpiegituraren jarduerak teorikoki planteatu behar dituen inpaktuetako batzuk positiboak izan daitezke; izan ere, eremuko ingurumen-baldintzak hobetzea ekarriko dute.

Proiektuak istripu larri edo hondamendien aurrean duen kalteberatasunari dagokionez, PHDak larrialdi-kasu gisa identifikatuko ditu honako hauek, nahiz eta nekez gerta daitezken: biltegiatutako materialaren irristatzea eta ezegonkortasuna, instalazio berriaren pisuaren eta/edo hark zabortegiko drainatze-sistemetan eragiten duen interferentziaren ondorioz; sutea gelaxketan, berezko instalazioetan eta/edo aldameneko landaredian; eta hauts edo partikula eseki ugari sakabanatzea, haize bortitzen eraginez.

Obren fasean, aipatutako inpaktuei, eremuaren ezaugarrien eta proposatzen diren jarduketan arabera, honako hauek eragindakoak gehitu behar zaizkie: landaredia moztu eta belar-sastrakak kentzea, lur-mugimenduak eta makineria mugitzea, eta, horren ondorioz emisio atmosferikoak (partikulak, zarata), hondakin-sorrera, obran sortutako efluentek lurrazaleko uretan izan ditzaketen eraginak, makinaren mantentze-lanetako istripuzko isurketak eta abar.

Halaber, adierazi behar da eremua zeharkatzen duen eta jarduerak partzialki okupatuko duen ibarbidea bisoi europarrarentzat hobetu beharreko tartetzat hartzen dela, Bizkaiko Lurralde Historikoko espezieia kudeaketa-planaren arabera.

Kontuan hartuta proiektuaren eremuaren zati bat betelan zaharrek artifizializatutako lursailei dagokiela, inpaktuak handiagoak dira kontserbazio-egoera onean dagoen landaredi naturala kontserbatzen den eremuetan, bai eta errekaen bidean eta ibaiertzean dagoen landarediarengan.

Instalazio berrien funtzionamendu-fasean, aldezturik, honako inpaktu hauek espero daitezke: zarata sortzea, emisio atmosferikoak (usainak barne), instalazioaren funtzionamendurako baliabideak kontsumitzea, hondakinak ekoiztea, uretara, lurzoruetara eta abar isuriak egitea, eta balizko arrisku geoteknikoaren ondoriozkoak.

Ildo horretan, proiektuak eskura dauden teknikarik onenak biltzen ditu eta, hala, ingurumena osotasunean babesteko helburuak betetzen direla bermatzen da, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean den araudian adierazitakoari jarraituz. Haatik, proiektuak, soluzioaren garapenean, behar diren neurriak hartuko ditu inpaktu bakar batek ere ez dezan «garrantzi gutxikoa» atalasea gaingitu.

Baldintza horietan, espero daiteke instalazioaren funtzionamenduak eragindako inpaktuak bateragarriak izatea aplikatzekoak diren ingurumen-kalitateko helburuekin, eta hori izango da, betiere, instalazioaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren eta ingurumen-baimen integratuaren xede.

2. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren zabaltasuna, xehetasun-maila eta zehaztasun-maila

Atariko gogoeta gisa, aipatu behar da Basalur SLk Galdakaon sustatutako hondakinak eta bigarren mailako materialak biltegitzeko eta kudeatzeko zentroaren proiektuari ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaiola, bai eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31. artikuluan ezarritako ingurumen-baimen integratuaren araubide juridikoari ere. Zehazki, aipatu 10/2021 Legearen II.D eranskineko 8.e epigrafean jasotakoarekin pareka daiteke proiektua: *Etxe-hondakinak edo industria-hondakinak kudeatzeko lanetan sortzen diren hondakin ez arriskutsuak, hondakin geldoak izan ezik, hartzen dituzten zabortegiak. Bestelako hondakin ez arriskutsuen edo edozein eratako hondakin geldoen zabortegiak, egunean 10 tona edo gehiago jasotzen badituzte eta guztira 25.000 tonako edo gehiagoko edukiera badute.*

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23. artikuluan xedatzen dena aplikatuz, bateratu egingo dira ingurumen-baimen integratuaren araubideari dagozkion administrazio-prozedura eta ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioaren prozedura. Gainera, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukia ingurumen-baimen integratuaren parte izango da, eta bi erabakiak administrazio-egintza berean emango dira. Hartara, prozedura biak behar bezala integratzeko, eta sustatzaileak agiri berak bi aldiz bidaltzea saihesteko, dokumentu integratua sortu beharko da, **Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana** izenekoa. Horrekin lotuta, ingurumen-baimen integratua eskatzeko proiektu teknikoaren dokumentazioa osatzeko, barne hartu beharko dira ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araudian ezarrita dauden alderdiak.

Eskaeraren edukia:

- A) Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa.
- B) Laburpen ez-teknikoa.
- C) Sektoreko legerian adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

A) PROIEKTU TEKNIKOA ETA INGURUMEN-INPAKTUAREN AZTERKETA.

Apartatu honetan aurkeztu eta garatu da, oro har, ingurumen-baimen integratua eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa, baita, zehaztasun handiagoz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko beharrezkoa den informazioaren irismena ere. Informazio hori modu integratuan sartu beharko da dokumentu bakar batean, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 34. artikuluan ezarritako edukietara egokituko da.

Proiektu teknikoan eta ingurumen-inpaktuaren azterketan garatu beharreko apartatuen eskemak honelakoa izan behar du:

1. Jardueraren eta ingurumen-inpaktua eragin dezaketen ekintzen ezaugarri orokorrak.
2. Ordezko aukerak aztertzea eta teknika erabilgarri onenak ezartzea (aurrerantzean, TEO).
3. Baliabideen eta energiaren erabilera eta kontsumoa.
 - a) Energia-kontsumoa.
 - b) Ur-kontsumoa.
 - c) Lehengaiak eta material osagarriak: biltegitratzea, erabilera eta kontsumoa.
4. Emisioen deskribapena eta zenbatekoa.
 - a) Airerako emisioak.
 - b) Zarata eta bibrazioak.
 - c) Argi-emisioak.
 - d) Uretarako isuriak.
 - e) Berotegi-efektuko gasak.
5. Hondakinen sorrera eta kudeaketa.
 - a) Hondakinen sorrera.

- b) Hondakinen bilketa eta kudeaketa.
6. Instalazioa kokatuko den lekuaren ingurumen-inbentarioa.
7. Jarduketak eremu hartzailean izan ditzakeen eraginak identifikatzea eta baloratzea.
8. Ustiapen-baldintzak eta ingurumena narriatzea saihesteko beste neurri batzuk.
 - a) Babes eta zuzenketa-neurriak obra-fasean.
 - b) Instalazioan hondakinak entregatzeko, hartzeko eta kontrolatzeko baldintzak
 - c) Airerako emisioak minimizatzeko neurriak.
 - d) Uretarako isuriak minimizatzeko neurriak.
 - e) Lurraren kutsadura minimizatzeko neurriak.
9. Lurzoruaren oinarritzko txostena.
10. Ingurumena Zaintzeko Programa.
11. Prebentzio-neurriak eta ohiz kanpoko egoeretan funtzionatzeko baldintzak, proiektuaren urrakortasuna kontuan hartuta.

Gainera, sustatzaileak aurreko apartatuetan zehaztutako ohar guztien laburpen ez-tekniko bat erantsi beharko du eskabidean, informazio publikoaren izapidearen ondoretarako errazago uler dadin.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean zehazten da zein diren ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa egiteko nondik norakoak.

Proposatzen diren jarduketak eta kaltetu daitezkeen ingurumenaren ezaugarriak direla-eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako apartatu horiek garatu beharko ditu, honako zabaltasun eta xehetasun-maila hauekin.

1. Jardueraren eta ingurumen-inpaktua eragin dezaketen ekintzen ezaugarri orokorrak.

Apartatu honetan, hondakinak eta bigarren mailako materialak biltegitatzeko eta kudeatzeko instalazioaren jarduerarako beharrezkoak diren jarduketak eta instalazioak deskribatuko dira, bai eta hari erantsitako instalazioak ere. Instalazioek ondo funtziona dezaten behar diren proiektuko jarduketa guztiak behar bezala identifikatu beharko dira, eta, hala badagokio, proiektuaren eremua gainditzen dutenak identifikatu egingo dira, hala nola hornidurako linea elektrikoak edo saneamendurako nahiz hornidurarako eroanbideak.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 34. artikuluan eta Ingurumen-ebaluzioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean aipatzen den informazioa alde batera utzi gabe, apartatu honetan honako hau jasoko da berariaz:

- Obra-fasean inpaktuak sor ditzaketen proiektuko jarduketak

- Proiektuaren eragin-eremuaren eta jardueraren instalazioen kokapena eta mugaketa.
- Instalazioko obra-fasean ingurumenean eragina izan dezaketen proiektuko ekintzen deskribapena. Kontuan hartuko dira bai aurreikusitako instalazioak gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketak, bai planteatzen diren jarduketak gauzatzeko behar diren instalazioak edo zerbitzu erantsi edo osagarriak (bide-sarbideak, linea elektrikoak, ur-hornidura eta ur-bilketako, saneamenduko eta abarreko obrak).
- Obrako instalazio osagarriak kokatzea: makineria-parkeak, lehengaiak eta indusketa-materialak metatzeko lekuak, etab.
- Lurren mugimenduaren balantzea. Sortutako hondeaketa-soberakinen kopurua, kudeaketa eta helmuga. Mailegu-materialen premiak, kuantifikazioa, ezaugarriak eta jatorria.
- Kaltetutako landaredi-masen deskribapena, azalera, egungo kontserbazio-egoera, interes ekologikoa eta abar barne.
- Kaltetutako ibilguen luzera. Ibilguetan egin beharreko lanen eta eremuko drainatzea lehengoratzeko lanen deskribapen xehea.
- Aurreikusten den obra-iraunaldia, obraren plana (haren faseetako bakoitzaren iraunaldia, halakorik balego) eta instalazioak martxan jartzeko aurreikusitako data.
- Obra-fasean atmosferara egindako emisioak (hautsa, zarata eta bibrazioak) sortzea.

- Isurketak sortzea obra-fasean: isurketen izaera, arazketa-sistemak eta hondakinen azken helmugak.
- Obra faseko hondakinen ekoizpena: kantitateak, mota eta kudeaketa, helmuga.
- Kalte litezkeen zerbitzuak (elektrizitatea, ur-hornidurarako eta -saneamendurako sistemak eta abar) etetea eta berriz jartzea.
- Obrako trafikoa: ibilgailu astunen joan-etorrien zenbatespena eta hautatutako ibilbideak. Sor daitezkeen eragozpenak.
- Aurreikusitako hegalaren, plataformen eta deposituen egonkortasunari buruzko azterketa. Azterketa geologiko eta geotekniko bat sartuko da, behar adinako xehetasun-maila izango duena, eta azpiegituraren egonkortasuna bermatuko duten parametroak ezarriko dituen azterketa espezifiko bat aurkeztuko da.
- Betelan zaharreko materialen tratamendua.

- Proiektuaren jarduketak, jardueraren funtzionamendu-fasean inpaktuak sor ditzaketena

- Lurzatiaren hirigintza-sailkapenaren definizioa, honako hauek zehaztuta: baimenduta eta debekatuta dauden erabilerak, indarreko hirigintza-plangintzan ezarritako erabilera-baldintzak. Gainera, proiektuaren bideragarritasuna justifikatu beharko da, hirigintza- eta ingurumen-ikuspegiari oinarrituta.
- Instalazioaren kokapena eta hurbilen dauden etxebizitzekiko, biztanleguneekiko, ekipamendu komunitarioekiko, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenekiko eta abarrekiko distantziak. Kokalekuaren eta lurzatian ezartzearen planoak (1:10.000 eskala).
- Lurzatiaren azalera eta eremuan bereizitako eremuen azalaren xehetasuna (biltegiatze-eremua, kudeaketa-eremua eta indargetze-eremua).
- Proiektatutako jarduera-arloen deskribapen xehea, balorizazio- eta ezabatze-lanetarako.
- Instalazioak nola dauden kokatuta lurzatian. Zolatuko den lurzatiaren azaleraren ehunekoa adierazi beharko da, baita zer motatako zoladura den ere.
- Instalazioaren sarbidearen deskribapena eta sarbide-kontrolarena. Ibilgailuak instalaziora/instalaziotik zehazki nondik sartu eta aterako diren adierazi beharko da, bai eta zer ibilgailu mota aurreikusten den sartu ahal izango direla, haien tonak, neurriak, estimatutako ibilgailu-kopurua eta abar zehaztuta.
- Proiektatutako eraikin, pabiloi eta esparruen eraikuntza-ezaugarri orokorrak: neurriak, egiturak, fatxadak, itxiturak eta estalkiak. Oinplanoak, altxaerak eta sekzioak.
- Instalazio guztien oinplanoa, proiektu-eskalan, gutxienez honako elementu hauek jasotzen dituen: urbanizazioa (eraikinak, bideak, aparkalekuak, itxiturak, etab.), paisaia egokitzeko neurriak (landaketak, heskaiak, lorategi-eremuak, etab.), drainatze-sareak (euri-urak, ur beltzak, hondakin-urak), hornidura- eta zerbitzu-sareak, eta harguneak (ura, elektrikitatea, gasa, etab.).
- Instalazioan garatzen den prozesu-lerroa deskribatzea. Linea eta instalazioaren gaitasun izendatua, aurreikusi den jarduteko araubidea eta aurreikusi diren langile- eta kualifikazio-beharrak adieraziko dira, honako datu hauek barne: txandakako lanaldia dagoen, jarduteko araubidea eta urteko ordu kopurua. Masen eta energiaren balantzeak sartuko dira eta potentzia izendatu globala (kW) adieraziko da.
- Hondakinak instalazioan sartu eta jasotzen direnetik egiten diren prozesu operatibo guztien deskribapen zehatza. Prozesuaren fluxu orokorraren diagrama bat gehituko da, prozesu osagarriak barne. Ingurumenean eragina sor dezaketen prozesuak identifikatu eta prozesu bakoitzean generikoki ekoizten diren hondakinak eta efluenteak (gasak edo likidoak) adieraziko dira. Espero diren hondakin-uren fluxuei dagokienez, banaka identifikatuko dira eta bakoitzaren jatorria identifikatuko da.
- Instalazio nagusiak, osagarriak eta ekipamendua deskribatzea. Jarduera garatzeko aurreikusitako makineriaren eta ekipamenduaren zerrenda, kasu bakoitzean potentzia elektrikoa eta/edo termikoa adierazita.

- Azpiegitura eta ekipamenduen deskribapen zehatza. Azpiegitura komunei buruzko informazioa ere eman beharko da, honako hauena: biltegiatze-eremuak, hondakinak kudeatzeko sistemak, berotze- eta hozte-sistemak eta abar.
- Drainatze-sareak. Aurreikusitako drainatze-sareen oinplanoa (euri-ur garbiak eta zikinak, ur beltzak, edalontzietako lixibiatuak, drainatze perimetrala, etab.), isurketa-puntuak adierazita. Eremu desberdinen iragazgaiztearen ezaugarriak zehaztuko dira, sortzen diren lixibiatuak biltzeko modua eta horiek tratatzeko modua adierazita.
- Ustiapen-fasean dagoen trafikoa: ibilgailu astunen joan-etorrien zenbatespena eta hautatutako ibilbideak.
- Jasotako hondakinen eta materialen jatorria, eta horien tipologia identifikatzea.
- Instalazioaren ustiapen-fase guztien deskribapen xehea. Hala badagokio, apartatu honetan ustiapen-fase bakoitzerako adierazitako aurretiko puntuak berariaz deskribatuko dira, eta bereziki kontuan hartuko dira kudeaketa-gelaxkak pixkanaka zabaldu eta zigitatzetik eratorritako jarduketak eta balorizazio-plataforma handitzetik eratorritakoak, kontuan hartuta horrek dakartzan jardueraren aldaketak eta ustiapenaren ezaugarriak.

-Proiektuaren jarduketak, jarduera eteteko fasean inpaktuak sor ditzaketenak

- Instalazioa ixteko planaren argibidea, haren iraupena / bizitza baliagarria zehaztuta.
- Jarduera desegiteko jarduketaren deskribapena. Hala badagokio, instalazioak eraistea, kudeaketa-gelaxkak behin betiko zigitatzea, artifizializatutako eremuetako ingurumena lehengoratzea, etab.

Apartatu honetako informazioarekin batera, edukiak hobeto ulertzeko beharrezkoak diren proiektuaren eskalako planoak emango dira, proiektatutako jarduketaren oinplanoak, luzetarakoak eta zeharkakoak barne. Informazio idatziak eta grafikoak bat etorri beharko dute, eta proiektuaren hasierako dokumentuan agertzen diren desadostasunak zuzendu beharko dira.

Besteak beste:

- Instalazioen planoak, 1:2000 eskalan edo zehatzagoan, gutxienez honako elementu hauek barne hartuta: urbanizazioa (eraikinak, bideak, aparkalekuak, plataformak, etab.), drainatze-sareak (euri-urak, ur beltzak, hondakin-urak), hornidura- eta zerbitzu-sareak, eta harguneak (ura, elektrizitatea, gasa, etab.).
- Proiektuaren eremuaren profilak, gaur egungo egoeran eta instalazioa egin eta ondorengo handitze eta zigitatzeen ondoren.

2. Alternatibak aztertzea eta teknika erabilgarri onenak ezartzea.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketan, irizpide anitzeko azterketa bat sartu behar da, proposatutako proiekturako teknikoki bideragarriak diren aukerei buruz; ingurumenaren aldetik egokienak eta proiekturako garrantzitsuak diren alternatibei buruz (zero aukera edo jarduketarik ez egitea barne), hain zuzen. Halaber, proposatutako konponbidearen justifikazio bat sartu behar da. Jarduketaren dimentsioari eta hedadurari buruzkoa izan beharko du, bai eta dauden konponbide teknikoei buruzkoa ere.

Horretarako, eta hondakinak eta materialak biltegiartzeko eta kudeatzeko instalazioaren funtzionamenduaren harira, 2021eko teknika erabilgarri onenak (TEO) edo antzeko ingurumen-eremuetan eskaintzen dituzten beste batzuk erabili izana justifikatu beharko da, jarduera osoari dagokionez. Proiektuaren alderdi partikularrak azpimarratuko dira bereziki, eta, horri dagokionez, BREF dokumentu honetan ezarritako neurriak eta baldintzak kontuan hartuko dira: *Europako erreferentziako teknika erabilgarri onenak errekontza-instalazio handien esparruan [Batzordearen 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakia, 2018ko abuztuaren 10ekoa, hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauarekin bat etorritik].*

Jardueran erabiltzea aurreikusten diren teknikak identifikatu beharko dira, hau da, gutxienez aipatutako dokumentuan teknika erabilgarri onentzat (TEO) jotzen direnak. Kasu bakoitzean lortu nahi diren emisio-balioak adierazi eta justifikatuko dira, inplikaturako prozesuen ezaugarri diren gai kutsatzaileak

kontuan hartuta. Arreta berezia jarriko zaie kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren II. eranskinean zerrendatutako substantziei.

Alternatibarik onena hautatzeko, askotariko irizpideak jasotzen dituen azterketa global bat egingo da, alderdi ekonomikoak ez ezik, gizarte- eta ingurumen-alorrak ere aintzat hartuta.

Atala bukatzeko, hautatutako alternatiba justifikatu beharko da, eta, nolana ere, bermatu egin beharko da hautatutako soluzioa teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela, eta ingurumenaren ondare- eta ingurumen-osagaiei ahal bezain kalte txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da.

3. Baliabideen eta energiaren erabilera eta kontsumoa.

Apartatu honen xedea da jardueran erabiliko diren baliabideen kontsumoa identifikatzea; hori oinarritzat harturik, gero, erabilera horri loturiko balizko ingurumen-inpaktuak identifikatzeko. Era berean, instalazioak baliabideak eta energia efizientzia erabiltzen dituela justifikatu beharko da.

Horrela, instalazioaren baliabide naturalen, lehengaien, substantzien, uraren eta energiaren aurreikusitako kontsumoen estimazioak aurkeztu beharko dira. Urtean kontsumitutako kopuruak adierazten dituen informazioa biltzea garrantzizkoa den arren, baliabide horiek zer prozesutarako izango diren beharrezkoak ere zehaztu beharko da.

Alderdi hauei buruzko informazioa jasoko da:

- Energia-kontsumoa; aurreikusitako energia iturriak identifikatuko dira, kanpoko eta barruko iturriak bereizita. Tratamendu-lerrorako ekipoak deskribatuko dira, instalatutako potentzia termikoa adierazita, bai eta, hala badagokio, azpiestazioak, transformazio elektrikoko zentroak edo instalazioak hornitzeko beharrezkoak diren azpiegitura elektriko berriak ere.

Urteko energia-kontsumoak zenbatetsiko dira, prozesua banakatuta.

Energia aurrezte eta energia-efizientzia sustatzeko abian jarritako neurriak deskribatuko dira, ekipamenduen mantentze-eragiketarako barne.

Behar izanez gero, erregai mota bakoitzari dagozkion biltegitratze-eremu berriak deskribatuko dira, honako alderdi hauek adierazita:

- Lurrazaleko biltegitratze eremuak: neurriak, zoladura, materialak bereizteko neurri fisikoak (behar direnean).
- Biltegitratzeko gordailu/deposituen neurriak eta banakako edukiera, zoladura eta atxikipen-ontzienak (behar direnean).
- Biltegitratzeen kokapen-planoak eta instalazioen krokisak.
- Halaber, aplikatzeko den araudi tekniko eta materialak maneiatzeko eta biltegitratzeko erabilitako segurtasun-irizpideak ere adierazi behar dira.

- Ur-kontsumoa. Instalazioetan aurreikusitako uraren balantze osoa sartu beharko da, honako hauei buruzko informazioa barne hartuta: ur-kontsumoa, isuritako urak eta euri-urak. Fluxu bakoitzerako batez besteko emarien (m^3 /egun), urteko emarien (m^3 /urte) eta gehieneko emarien (l/s) estimazioa adierazi beharko da. Isurketa likidoak sortzen diren prozesu-etapak eta puntuak deskribatuko dira, diagrama batekin batera, beharrezkoa izanez gero.

Aurreikusitako ur-hornidurako sistemak deskribatuko dira, eta erakunde kudeatzaileak hornidura hori nahikoa dela justifikatuko du, bai eta instalazioa hornitzeko lehendik zegoen azpiegitura edo, hala badagokio, berria ere.

- Lehengaiak eta material osagarriak: biltegitratzea, erabilera eta kontsumoa.

Instalazioan onartzen diren hondakin eta material motei buruzko informazioa eman beharko da, haien izaera, jatorria, erabilitako kantitateak eta mota bakoitzaren proportzioa, biltzeko maiztasuna eta instalaziora iristen diren materialen partidak kontrolatzeko mekanismoak zehaztuta. Hondakin mota bakoitzaren kodifikazioa zehaztu beharko da, Europako Hondakinen Zerrendaren arabera (EHZ kodeak).

Instalazioan erabilitako gainerako lehengaiak eta gai osagarriak identifikatuko dira, dagokion produktuak jardueraren arabera sailkatzeko kodea adierazita, eta kalkulaturako kontsumoak, prozesuko zein eragiketatan erabiliko diren eta haien funtzioa deskribatuta. Aipamen generiko bat egin ahal izango da, oso kopuru txikian erabiltzen direlako edo beste zeinahi arrazoiengatik ingurumenean ia eraginik ez duten material osagarriei buruz.

Prozesuan erabiliko diren eta atmosferara igortzean eragina duten lehengaien orduko gehieneko kontsumoa eta urteko kontsumo totala adierazi beharko dira. Prozesuak etenak izaten baditu, gehieneko kontsumoaren balioa beste denbora-tarte batekoa izan daiteke, inplikaturako prozesuaren iraupenaren adierazgarri baldin bada.

Disolbatzaileak erabiliz gero, aurreikusitako urteko kontsumoa adieraziko da (t/urtean adierazita). Urteko kontsumoa kontsumitutako lehengai bakoitzaren disolbatzaile edukian oinarrituta kalkulatu beharko da. Hala badagokio, disolbatzaileak erabiltzen diren ekoizpen-prozesuak zehaztuko dira.

Erabiltzean CO₂ edo berotegi-efektuko beste gas batzuen emisioa eragin dezaketen lehengaiak eta gai osagarriak identifikatuko dira.

Instalazioan erabilitako substantzia arriskutsu guztien segurtasun-fitxak igorri beharko dira.

Lehengaiak edo gai osagarriak biltegitazeari dagokionez, berorien deskribapen zehatza egin behar da, gutxienez, ondoren adierazten den informazioa emango duena:

- Lurrazaleko biltegitazte eremuak: neurriak, zoladura, materialen aurkezpen modua (ontziratu gabe, ontziratze mota) materialak bereizteko neurri fisikoak (behar direnean).
- Biltegitazteko gordailu/deposituen neurriak eta banakako edukiera, zoladura eta atxikipen-ontzienak (behar direnean).
- Egoera-planoa, biltegitazte guztiak jasotzen dituen.
- Halaber, aplikatzekoa den araudi tekniko eta materialak maneiatzeko eta biltegitazteko erabilitako segurtasun-irizpideak ere adierazi behar dira.

Gainera, zehazki deskribatuko dira lehengaien eta gai osagarrien karga eta deskarga lanak eta barruko garraioak.

4. Emisioen deskribapena eta zenbatekoa.

Apartatu honetan deskribatuko dira aurreikusitako airerako emisioak eta uretarako isuriak. Horretarako, prozesu bakoitzari dagozkion emisio eta isuri motei, kopuruei eta kutsatzaile bereziei buruzko datuak eman beharko dira.

- Airerako emisioak.

Airera isurgaiak igortzen dituzten iturriak identifikatuko dira, bai apartatuak eta bai barreiatuak.

Instalazioaren plano orokor bat aurkeztuko da, isurgune guztien kokapena adierazten duena.

Aurreikusitako foku bakoitzerako datu hauek emango dira:

- Izena.
- UTM koordinatuak.
- Lotutako prozesua edo prozesuak. Prozesuak ebazpen honen 1. apartatuan adierazitakoaren arabera identifikatuko dira.
- Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta berori aplikatzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren arabera proposaturako katalogazioa. Justifikazioa.
- Jardueraren ondoriozko emisio bakoitzaren jarioaren eta osaeraren zenbatespenak. Kalkulu horiek, ondoren, arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzeko aukera emango duten unitateetan adierazi beharko dira.

- Aurreikusitako ebakuazio-sistemen ezaugarriak: tximinien altuera eta diametroa. Tximinien altuera kalkulatzeko, bereziki A eta B taldeetan katalogatutako fokuetarako, Eusko Jaurlaritzak 2012an egindako 7. jarraibide tekniko erabiliko da, hau da, (JT-07): Tximinien garaiera Esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://www.euskadi.eus/jarraibide-teknikoak/web01-a2ingair/eu/>

Emisio lausoak aurreikusten badira (usainak, hala badagokio), emisioaren jatorria, horri lotutako prozesua eta aireratuko diren kutsatzailen zenbatespena (t/urte) identifikatu beharko dira, eta erregimen jarraitua edo etena den adierazi beharko da.

- Zaratak eta bibrazioak

Zarata-iturriak eta berorien intentsitatea identifikatu beharko dira, baita jarduerak sortutako zarataren zenbatespena egin ere, lurzatiaren mugan, inguruaren moteltze ahalmenean oinarrituta (distantzia, hesi naturalak edo eraikiak).

Jardueraren eragin akustikoaren balorazio bat sartuko da, bai eta, hala badagokio, produkzio-prozesuari lotutako bibrazioen balorazioa ere, aplikatzekoak diren zarataren eta bibrazioen arloko xedapen espezifikoetan jasotako edukia kontuan hartuta, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua.

- Argi-emisioak

Aurreikusitako argi-kutsaduraren fokuak deskribatu beharko dira, baita jardun aurreko egoera ere, proiektuak izan dezakeen eragin-eremuan. Bereizi egin beharko dira zeruko iturri edo objektuen erradiazioari eta atmosferako goi-geruzen lumineszentziari egotz dakiekeen distira naturala eta kanpoko argiterian instalatutako argi-iturrien ondoriozko argi-distira.

Kanpoko argiztapenaren erabilera efizientea egingo dela justifikatuko da, oinezkoei, ibilgailuei eta jabetzei eskaini behar zaien segurtasunari kalterik egin gabe. Horri gagozkiola, urbanizazioaren kanpoko argiztapenaren instalazioaren diseinuari, egikaritzeari eta mantentzeari dagokionez, azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuan ezartzen duena hartuko da kontuan. Dekretu horren bidez onartzen dira kanpoko argiztapen-instalazioen energia-efizientziari buruzko araudia eta horretarako jarraibide tekniko osagarriak (EA-01etik EA-07ra).

- Uretan egindako isurketak

Apartatu honetan, jardueraren isurketa-fokuen identifikazioari eta ingurune hartzailerari isurtzeko puntuei buruzko informazioa eman beharko da, baita espero diren isurketen ezaugarri kuantitatibo eta kualitatiboaren zenbatespena ere.

Proiektatutako isurketak tratatzeko sistemak deskribatuko dira, eta horien nahikotasuna justifikatuko da.

Ibilgura isuriz gero, isurketa-puntuei buruzko 2. inprimakia bete beharko da, eta hondakin-uren fluxuaren jatorriaren arabera, uren dokumentazio sektorialeko isurketaren karakterizazioari buruzko 3.2, 3.3, 3.4 eta 3.5 inprimakiak, ingurumen-organoaren webgunean eskuragarri daudenak, esteka honetan:

[Tramitazioa / Inqurumen Baimen Bateratua eskatzea / Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztea](#).

Instalazioko euri-uren fluxuei dagokionez, euri-ur «zikinen» drainatze-sareak, alegia, kutsatzailak eduki ditzaketenak, eta euri-ur «garbiak» daramatzaten drainatze-sareak bereizi beharko dira, eta azken kasu horretan, esandako euri-uretan ez dagoela kutsatzailerik egiaztatu beharko da.

- Berotegi-efektuko gasak

Iturriak identifikatzeari, CO₂ duten gasen zenbatespenari eta berotegi-efektuko beste gas batzuen zenbatespenari buruzko informazioa eman beharko da.

5. Hondakinaren sorrera eta kudeaketa.

Hondakinak sortzea minimizatzeko hartutako eta/edo aurreikusitako neurriak deskribatuko dira.

Hondakinak sortzen dituzten prozesuak identifikatuko dira, eta prozesu bakoitzean sortuko diren hondakin motak eta kantitateak zenbatetsiko dira.

Hondakin bakoitzaren kasuan, honako informazio hau zehaztu beharko da:

- Hondakinaren izena eta kodifikazioa, Europako Hondakinen Zerrendako kodeen bitartez (EHZ kodeak).
- Egindako tratamendu motak, Ekonomia Zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean jasotako kodeen arabera.
- Hondakin arriskutsuen kasuan, eta prozesu/eragiketa bakoitzeko hondakin bakoitzerako, nola sortzen diren adieraziko da, baita hondakina osagai nagusiak eta arriskugarritasun-izaera ematen dioten substantziak ere.
- Hondakinak sortzen dituzten prozesuak eta eragiketak (baita instalazio osagarrietan eta mantentze- eta garbiketa-lanetan sortzen direnak ere).
- Urtean sortzen diren hondakinen gutxi gorabeherako kopurua (kg/urtea).
- Azken kudeaketaren aurreko hondakinak biltegitzeko sistemen deskribapen zehatua: neurriak, kokapena, edukiera, hondakinak maneiatzeko eta biltegitzeko erabilitako segurtasun-irizpideak. Hainbat biltegi izanez gero, guztiak deskribatu beharko dira.
- Kudeatzaile baimenduak kudeatu edo jaso aurretik ontziratzen eta biltegitzen diren hondakin arriskutsuen kasuan, berorien ontziratze-baldintzak (ontzi mota, itxitura, etab.) eta etiketa-moduak adierazi beharko dira. Konpresoreen purgaketak egiten badira, berorien kudeaketaren berri eman beharko da.
- Hondakin bakoitza biltzeko aurreikusitako maiztasuna, kudeatzaile baimendu bakoitzeko.
- Jarioen kontrako babes neurriak eta Produktu Kimikoak Biltegitzeko (PKB) erregelamendua aplikatzekoa zaien kasuak zehaztu beharko dira.
- Egoera-planoa, hondakinen biltegitze guztiak jasotzen dituena.
- Proiektatutako lixibiatuen dekantazio-putzuaren eta haiek aldeztu aurretik tratatzeko instalazioaren funtzionamenduaren deskribapen zeha.

Ezabatzea proposatzen den hondakinen kasuan, ordezko balorizazio-biderik ez dagoela justifikatu beharko da.

6. Ingurumen-inbentarioa.

Apartatu honetan eremua deskribatuko da, elementu baliotsuenak eta proiektuko ekintzek gehien eragin ditzaketenak nabarmenduta. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duena betez, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-baldintzak aztertuko dituen txostena ere sartu behar da, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera alderatzeko azterketa bat ere, aztertutako alternatiba bakoitzaren kasuan.

Apartatu hau egiterakoan, kontsultatutako administrazio publikoetatik jasotako txostenak hartuko dira kontuan. Nolanahi ere, ingurumen-inbentarioaren irismenak txosten horiei eta dagokion irismen-dokumentuan finkatzen denari erantzuten diela justifikatu beharko da.

Lehenik eta behin, ingurumen-inpaktuaren azterketan, proiektuaren eragin-eremua zehaztuko da, aztergai dagoen inguruneke elementu bakoitzaren kasuan, eta behar bezala justifikatuko da, oro har onartutako azterketetan oinarrituz. Azterketaren apartatu hori lantzeko erabili den bibliografia aipatuko da.

Ingurumen-inbentarioa apartatuz apartatu baloratuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (tokiko mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuak eskuratzeko iturri dokumentalak adieraziko dira, material bibliografikoak izan, norberak prestatuak edo bestelakoak izan.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren azalpena modu laburrean egingo da, ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak ekidinez, eta proiektuak ingurumenean izan litzakeen eraginak ulertzeko behar dena kontuan hartuz.

Ezertan eragotzi gabe aurretik esandakoa, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Klima
 - Azterketa meteorologikoa. Datu klimatikoen jatorria.
 - Kokapen horretan haizeak izan ditzakeen ezaugarri bereziak.
- Geologia eta geomorfologia
 - Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak. Interes geologiko/geomorfologikoa duten gunek, eremu eta ibilbideen identifikazioa.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia
 - Proiektuaren eragin-eremuko sare hidrografikoa eta uren kalitatea.
 - Aldi baterako ur-ibilguen, ur-ibilgu iraunkorren eta instalazioaren elementu guztien artean dauden elkarreraginak adieraziko dira. Berezi, sarbideak eta ebakutzeko linea elektrikoa eraikitzearen ondoriozko elkarreraginak hartuko dira kontuan.
 - Inbentario bat egingo da, eta bertan jasoko dira eraginpean egon litezkeen ur-gunak eta gertuko biztanlegunak hornitzeko sistemak (urak biltzea, biltegitratzea eta banatzeko sareak). Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroan sartuta dauden beste eremu batzuk identifikatzea, hala badagokio.
 - Proiektuaren eremuko ezaugarri hidrogeologikoak. Material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen kalteberatasuna. Kalteberatasun handiko eremuen, karga-eremuen, hustutegiaren eta abarren identifikazioa, halakorik balego, eta eremu horien eta proiektuaren arteko lotura.
- Zonan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena

Inpaktua behar bezala ebaluatzeko eta babes- eta zuzenketa-neurri egokiak ezartzeko, kartografikoki zehaztu behar da proiektuaren eragin-eremuko landaredi autoktonoaren, Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdeko intereseko habitaten banaketa. Kartografia hori habitatak zehatz-mehatz mugatzeko erabiliko da –berezi, lehentasunezkoak–, proiektuak eragin ez diezaien.

Aipatutako intereseko habitat eta komunitateei dagokienez, proiektuaren eraginpean egongo den azalera zenbatetsi beharko da, eta habitat horietako bakoitzaren adierazgarritasunarekin kontrastatu –tokikoa, eskualdekoa eta bestelakoak–, habitat horien azaleraren galera objektiboki ebaluagarria izan dadin eta proiektuaren eraginari buruzko irizpen argi bat eman ahal izateko.

Azterketa hau egiteko abiapuntu gisa, geoEuskadin dagoen kartografia tematikoa erabil daiteke, baina informazio hori eremuan bertan kontrastatu beharko da, xehetasun-kartografia *in situ* eginez, ahal dela GIS tresnen bidez, natura-balio handieneko elementuak identifikatzea eta horiek kuantifikatzea ahalbidetuko duen eskala batean.

Landarediaren karakterizazioak barnean hartuko ditu landare-komunitateen kontserbazio-maila, egituraren konplexutasuna, espezie bereizgarriak, enblematikoak edo esanguratsuak eta fauna-espezie mehatxatuak hartzeko ahalmena (umatze, babes eta elikadurarako eremuak).

Halaber, aztergai den eremuan dauden fauna-komunitateak deskribatuko dira, arreta berezia jarrita fauna-espezie mehatxatuei eta haien umatze-, babes- eta elikadura-eremuei. Eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, eremuko ibarbideek bisoi europarrantzat zer garrantzi duten baloratuko da.

Proiektuaren eraginpeko eremuan putzuak eta hezegunak baldin badaude, anfibioren komunitateak edo haiei lotutako beste espezie batzuk aztertuko dira. Eremu horiek xehetasun-mapa batean

kokatuko dira, obrei ekin aurretik seinaleztatuta eta balizatuta egon daitezen eremuan, eta obrek inolako kalterik eragin ez diezaieten.

- Igarobide ekologikoak. Habitaten konektagarritasuna/zatiketa

Ingurumen-inpaktuaren azterketan, proiektuak lurraldeko konektibitate ekologikoan duen eragina baloratu beharko da.

- Ondare historiko-kulturala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritzak egindako txostenen arabera, proiektuak ez du eraginik kultura-ondarean. Edonola ere, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoari jarraituz, lurrak mugitzeko obretan arkeologia-izaerako aztarnarik aurkituz gero, berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari, eta azken horrek zehaztuko du zer neurri hartu behar diren.

- Paisaia

Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatearen eta hauskortasunaren azterketa egingo da. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Jarduketaren ikusgarritasuna ikuspen-arroaren hainbat gunetatik, ibilienak lehenetsita, eta gaur egungo egoera eta etorkizuneko konparatuz.
- Kalitatea.
- Ahultasuna.
- Dokumentazio grafikoa

Jarduketa-eremuaren ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografikoak txertatu beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko dute.

7. Inpaktuen identifikazioa eta balioespena.

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioaren elementuen eta inpaktuak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren ondorio dira. Erasanaren garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka erasango dien baliabideen kalitatea eta kantitatea. Bereizi egingo dira obra-fase, funtzionamendu-fase eta jarduera eteteko faseko inpaktuak.

Inpaktuen balorazioak kontuan hartuko ditu proiektutik eratorritako jarduketa guztiak, instalazioaren azpiegitura erantsi eta lagungarri guztiak barne, sarbide iraunkorrak eta aldi baterakoak, lurrak eta materialak aldi baterako pilatzea, etab. Instalazioaren ustiapen-faseetatik eratorritako jarduketa guztiak hartuko dira kontuan.

Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta, horretarako, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu horretan, funtsean, egungo egoera eta etorkizuneko konparatuko dira, zuzenketa-neurriak erabiliz.

Ingurumen-inpaktuak baloratzeko erabilitako zenbatespen-prozesuak eta metodologiak aipatuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartutako arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Ahal denean, gutxieneko muga onargarriak finkatzen dituzten ingurumen-kalitateko helburuak zehaztuko dira alde zehatzetik, erreferentzia gisa honako hauek hartuta: indarrean dagoen legeria, arestian aipatutako Europako Batzordearen erreferentziako dokumentua (BREF), hots, «Hondakinak tratatzeko Europako erreferentziako teknika erabilgarri onenak», edo onarpen handiko beste erreferentzia batzuk. Erasanaren garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka erasango dien baliabideen kalitatea eta kantitatea. Identifikatutako ingurumen-inpaktuak hierarkizatuko dira, haien garrantzi erlatiboa ezagutzeko.

A priori, proiektuaren eta eragindako ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta, inpaktuak identifikatu eta baloratzearekin lotutako alderdirik garrantzitsuenak airearen kalitatearen gaineko eraginari dagozkionak izango dira, atmosferara egindako emisioen ondoriozkoak (zarata eta usainak barne) eta lurzorua eta urak kutsa ditzaketen hondakin eta isurketen ondoriozkoak (lurrazalekoak eta lurpekoak). Nabarmenak izan daitezke, halaber, mendi-hegalaren balizko ezegonkortasunaren ondoriozko arrisku geoteknikoen inpaktuak, bai eta paisaia aldatzearen ondoriozkoak ere.

8. Ustiapen-baldintzak eta ingurumena narriatzea saihesteko beste neurri batzuk.

Proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio negatiboak murrizteko, ezabatzeko edo konpentsatzeko aurreikusitako neurriak adierazi beharko dira. Espero diren inpaktuen garrantziaren arabera proposatu eta dimentsionatuko dira zuzenketa-neurriak.

Inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko pentsatutako ekintza bakoitza xehetasunez identifikatu eta deskribatuko da, bai ekintzaren diseinu eta kokapenari dagokionez, baita kutsaduraren aurkako prozedurei, arazketari eta ingurumenaren babes generikoari dagokionez ere. Aldez aurreko neurririk ezean, ondorio horiek konpentsatzea helburu duten neurriak proposatuko dira, ahal dela lehengoratzeko ekintzekin, edota ekindako jarduketaren izaera bera eta alderantzizko efektua dutenekin.

Proposatutako prebentzio, babes- eta zuzenketa-neurriek kontuan izan beharko dute, bereziki, uretara eta lurzorura egindako isuriak murriztu, saihestu eta zuzentzeko aurreikusitako neurrien deskribapen xehatua, intereseko landaredi-masen eta fauna-espezieen gaineko eragina, paisaiaren gaineko inpaktua eta arrisku geoteknikoak. Horren kalterik gabe, eta ebaluazioaren xede diren jarduketan ezaugarriak kontuan hartuta, babes- eta zuzenketa-neurrien proposamenean honako alderdi hauek zehaztuko dira:

Obra-fasean ingurumena narriatzea saihesteko neurriak

- Obra-fasean sistema hidrologikoa eta uren kalitatea babesteko neurriak (jalkinak atxikitze sistemak, instalazio osagarrietatik eta makina-parketik datozen hondakin-uren tratamendua eta abar). Definizio horrek hainbat alderdi hartu behar ditu kontuan, hala nola hartutako irtenbidearen deskribapena, egituren kokapena eta abar.
- Lurzorua eta urak ez kutsatzeko eta kutsatzaileak sakabanatzea saihesteko aurreikusitako neurriak. Makina-parkeak eta instalazio laguntzaileak egokitzea (iragazgaitzea, drainatze-sarea...).
- Eremuko drainatzea leheneratzeko neurriak, eremua zeharkatzen duen Goikoerreka erreka funtzionaltasunari eusteko.
- Landaredi naturala eta fauna basatia babesteko neurriak, besteak beste, jarduketa-eremua mugatzea, babestu beharreko aleak identifikatzea, natura-interes handieneko eremuak mantentzea, eta abar. Hala badagokio, bisoi europarraren intereseko eremua babesteko neurri espezifikoak.
- Proiektuak ingurumena lehengoratzeko berariazko proiektu bat jasoko du, onartu dadin. Bertan, indargetze-eremuari emango zaizkion tratamenduak zehaztuko dira, eta, gutxienez, honako hauek identifikatuko dira: erabili beharreko espezieak, landaketa-esparrua, mantentze-lanak, berme-aldia (beharrezkotzat jotzen da gutxienez 5 urtekoa izatea) eta aurrekontua.
- Hala badagokio, kultura-ondarea babestera bideratutako neurriak.
- Obra-fasean kutsadura atmosferikoa prebenitzeko neurriak: hautsaren, zarataren eta abarren kontrola.
- Kamioien gurpilak obra-eremutik atera aurretik garbitzeko sistemen ezaugarriak eta kokapena; urak tratatzeko sistemetara konektatuko dira.
- Hondakinak obren fasean kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegitratze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.
- Paisaian integratzeko neurriak.
- Proiektu-eskalako plano bat erantsiko da, landareztatuko diren azalerak zehaztu eta irudikatuko dituena, kasu bakoitzerako aurreikusi den tratamendua ez ezik (ereintzak, landaketak, landare-pantailak jartzea, eremu laguntzaileen eta erantsitako instalazioen tratamendua eta abar),

aipatutako gainerako zuzenketa-neurrien kokapena ere adieraziz (material finak atxikitzeko sistemak, gurpilak garbitzeko sistema, etab.).

- Hala badagokio, egindako azterketa geoteknikoak ezartzen dituen neurriak.

Jardueraren funtzionamenduan zehar ingurumena ez narriatzeko neurriak

- Instalazioan hondakinak entregatzeko, hartzeko eta kontrolatzeko baldintzak:
Sustatzaileak onarpen-protokolo bat diseinatu beharko du, kudeatzeko gaituta dagoen hondakinak bakarrik kudeatuko dituela bermatzeko. Hala badagokio, laginak hartzeko prozedurak eta maiztasuna zehaztuko dira.
Hondakinak manipulatzeko eta biltegitatzeko neurriak zehaztuko dira, hondakinak ingurunean sakabanatzea galarazteko eta airearen, uren eta lurzoruauren kutsadura minimizatzekeo.
- Airerako emisioak minimizatzekeo neurriak:
Xehetasun osoz deskribatu beharko dira atmosferarako emisioak (usainak barne) atzitzeko eta arazteko aurreikusitako diren sistemak. Foku bakoitzean, berorri lotutako sistema edo sistemak zehaztu beharko dira. Horrela identifikatutako sistema bakoitzeko, ondorengo datuak eman beharko dira:
 - Aurreikusitako atzitzaille mota eta ezaugarri teknikoak.
 - Atzitzaillearen neurriak, ateratzea aurreikusten den aire-bolumenaren arabera.
 - Arazte sistema mota eta ezaugarri teknikoak.
 - Arazte-sistemaren errendimendua, sarrerako eta irteerako emaria zehazturik dela; baita araztea aurreikusten den kutsatzaile bakoitzaren kontzentrazioa ere (sarreran eta irteeran).Zehatz-mehatz azalduko dira zarata, dardarak, usainak eta argi-kutsadura sortzea eta transmititzea eragozteko aurreikusitako diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak.
Aipatutako neurri horiek instalatutako tresnerienak izan daitezke, baina baita eraikineko moteltze-hesietakoak edota lursailaren mugetan daudenak ere.
- Uretarako isurpenak minimizatzekeo neurriak:
Instalazioan sortutako efluenteen konposizioari eta kutsatzaileen kontzentrazio-estimazioari erreparatuta, uren isurketa minimizatzekeo (efluenteak bereiztea, berrerabiltzea, etab.) eta isuri aurretik arazteko aurreikusitako sistemen deskribapen xehatua egin beharko da, haien ahalmena eta tratamendu-efizientzia adierazita.
Hala dagokionean, uren arloko dokumentaziora jo, eta arazte- eta ebakuazio-instalazioei buruzko 4. eta 5. inprimakiak bete beharko dira. Inprimaki horiek ingurumen-organoaren webgunean daude eskuragarri, esteka honetan:
[Tramitazioa / Ingurumen Baimen Bateratua eskatzea / Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztea.](#)
- Lurraren kutsadura minimizatzekeo neurriak:
Azterketaren xede den lurzatian gaur egun dauden hondakinak kudeatzeko aurreikusitako jarduketak zehaztuko dira. Lurrak kutsatuta egon daitezkeenaren susmoa sortzen duen edozein kutsadurazantzuz agertzen bada, ekainaren 25eko Lurzorua ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeko 4/2015 Legeak xedatutakoa beteko da.
Instalazioan erabilitako, ekoiztako edo isuritako substantzia kutsatzaileei eta sortutako hondakinei dagokienez, lurzoruauren kutsadura minimizatzekeo prebentzio, defentsa eta kontrolerako aurreikusitako sistemen deskribapen zehatza jaso beharko da.

9. Lurzoruauren oinarritzko txostena.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuauren 2020ko urtarrilaren 23ko AGINDUA bete beharko da. Agindu horren bidez, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa

interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko Jarraibide Teknikoa onartu zen, lurzorua eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

10. Ingurumena zaintzeko programa.

Bai obra-fasean bai funtzionamendu-fasean, ingurumena zaintzeko programa bat aurkeztu behar da, zeinaren helburu nagusia izango baita proiektu teknikoan eta ingurumen-inkaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak beteko direla bermatuko duen sistema bat ezartzea, bertan adierazitako jarraibideekin eta neurri zuzentzaileekin batera.

Horrekin lotuta, programa honetan jarraian adierazita dauden alderdien definizioa barne hartu beharko da, hala obra-fasean nola funtzionamendu-fasean:

- Kontrolerako parametroak eta neurtu beharreko kutsatzaileak, emisioen eta isurien kutsatzaile bereizgarriak kontuan hartuta (direla gasak direla efluente likidoak). Uren kalitatearen kontrolean, hondakin-urak eta euri-urak, biak sartuko dira.

Kasua hala denean, isurpenek ingurumen hartzailean dituen eraginak kalkulatzeko ahalbidetuko duten neurketak egingo dira. Ingurumeneko airearen eta uren kalitatea adierazten duten parametroak eta kutsatzaileak zehaztu beharko dira, baita lurzorua balizko alterazioa edo kutsadura adierazten dutenak ere.

- Neurketa guztien maiztasuna. Noizbehinkako kontrolen kasuan, kutsatzaile bakoitzarentzat, neurketaren unea isurpenen adierazgarria izatea baloratu beharko da, jardueraren ekoizpen-sistema kontuan hartuta. Era berean, neurtzeko sistema jarraituak izanez gero, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio. Agindu horren bidez, jarraibide teknikoak zehaztu ziren abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko, atmosfera kutsa dezaketen jarduerak garatzen dituzten instalazioak arautzen baititu dekretu horrek.
- Laginak hartzeko puntu guztien kokapenak (koordinatuak eta planoko kokapena adierazi beharko dira, eta, behar izanez gero, haien kokapenerako krokisak).
- Uren kasuan, plano xehatu bat erantsiko da, kutxatilen, balbulen, emari-neurgailuen, laginak hartzearen eta neurketako eta kontroleko beste elementu batzuen kokapenaren berri emanez. Hala dagokionean, 4. inprimakiko (VII) apartatua bete beharko da, arazketa-instalazioen eta kontrol-elementuen deskribapenari buruzkoa. Ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, lehen aipatutako estekan:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

- Laginak hartzeko eta neurketak egiteko metodoak kontrolatutako parametro bakoitzarentzat, neurketaren doitasuna –hala dagokionean– eta laginaren adierazgarritasunari buruzko informazioa barne direla, jardueraren ekoizpen-sistema aintzat hartuta.
- Atalase-mugak eta erreferentziako mugak kontrolatutako parametro eta kutsatzaileentzat.

Kasu guztietan, kontrola instalazioaz kanpoko unitate batek egingo duen ala auto-kontrol bat den adierazi beharko da.

Halaber, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eraginaren jarraipen egokia egin ahal izateko, bai obretan, bai instalazioaren funtzionamenduan.

Kalitate-helburuak legediak zehazten dituen muga-balioen edo balio-giden arabera izango dira, edota BREF dokumentuen edo oro har onartutako azterketa teknikoaren arabera. Hala ere, proiektuaren eragin-eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak proposatu beharko dira zenbait parametrotan, beharrezko irizten bada.

Programa horrek jardueraren adierazleen zehaztapena eta adierazle horien analisi-sistematika jaso beharko ditu, enpresan bertan jardueraren ingurumen-kudeaketa egokia bermatzeko ezarri diren neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko.

Aurrekoa gorabehera, ingurumena zaintzeko programak, gutxienez, honako kontrol hauek jaso beharko ditu:

Obra-fasean

- Betelan zaharrean utzitako materialen eta obra-eremutik kanpo kudeatutako hondakinen tratamendua kontrolatzea. Hondakinen karakterizazioa eta horren araberako kudeaketa.
- Gainazaleko uren kalitatearen gaineko eraginak kontrolatzea.
- Intereseko landarediaren gaineko eraginak kontrolatzea.
- Bisoi europarren intereseko habitataren gaineko eragina kontrolatzea.
- Obrek eta indargetze-eremuak eragindako paisaia-aldaketak lehengoratu direla kontrolatzea (azalerak), egiten den ingurumenaren lehengoratzearen berariazko proiektuaren zehaztapenekin bat etorritik.
- Hala badagokio, egindako azterketa geologiko eta geotekniko espezifikoak ezarritako neurriak kontrolatzea.
- Obra-faserako aurreikusitako zuzenketa-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeke beste kontrol batzuk.

Funtzionamendu-fasean

- Instalazioan hondakinak onartzeko kontrola: Instalazioan onargarriztat jotzen diren hondakinak onartzeko protokoloa.
- Prozesuen parametroak kontrolatzea.
- Instalazioa handitzeko egindako jarduketak kontrolatzea, hala badagokio, egindako azterketa geologiko eta geotekniko espezifikoak ezartzen dituen neurrien arabera.
- Efluente likidoak kontrolatzea.
- Atmosferara egindako emisioak kontrolatzea.
- Zarataren kontrola.
- Funtzionamendu-faserako aurreikusitako zuzenketa-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeke beste kontrol batzuk.

Bukatze-fasean

- Instalazioko zigilatze-kondizioak kontrolatzea.
- Jardueraren eraginpeko eremuak paisaian integrazteke eta lehengoratzeko neurriak kontrolatzea.

11. Prebentzio-neurriak eta ohiz kanpoko egoeretan funtzionatzeko baldintzak, proiektuaren urrakortasuna kontuan hartuta.

Paragrafo honetan jasoko dira ingurumenean eragina izan dezaketen ohiz kanpoko funtzionamendu-egoeren ondorioak ekiditeko, edo, besterik ezean, arintzeko aurreikusitako neurriak. Egoera horien artean aurreikusitako dira jario, funtzionamendu-akats, aldi baterako gelditze eta instalazioaren behin betiko itxiera kasuak.

Alderdi hauei buruzko informazioa eman beharko da:

- a) Gelditze eta abian jartze egoerak. Apartatu honetan sartzen dira bai nahiko maiz gertatzen diren egoerak, ekoizpen-araubidea ez delako jarraitua (adibidez, asteburuko geldialdia), eta bai mantentze-programak aplikatzeke eratorritako egoerak. Aztertutako egoera bakoitzerako, honako hauei buruzko datuak emango dira:
 - Lotutako prozesua edo prozesuak.
 - Maiztasuna.
 - Gelditzeko eta abian jartzeko protokoloa.
 - Erator daitekeen balizko ingurumen-eragina; kasu bakoitzean, isurpen balioak eta hondakin ekoizpena adierazi beharko dira.
 - Isurpen eta hondakin horiek murrizteke aurreikusitako neurriak.

b) Ohiz kanpoko funtzionamenduko egoerak

b.1) Kutsatzaileen ihesak eta barreiatzea eragozteke aurreikusitako prebentzio-neurriak. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko aurreikusitako neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitatzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateke neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteke alarma-sistemak, fabrikako biltodien sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra,

maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isurketak biltzeko sistemak. Era berean, atmosferaren eta ur-ingurunearen kutsadura arazteko eta zuzentzeko sistemen prebentziozko mantentze-plan bat aurkeztu beharko da, bai eta horiek matxuratuz gero aurreikusitako neurriak ere.

Une oro aurreikusitako emisio-mailak betetzen direla bermatzeko kritikotzat jotzen diren elementuak identifikatuko dira, eta prebentzio-neurri egokiak proposatuko dira: ekipamenduen erredundantzia, segurtasun-stockak, etab.

b.2) Ohiz kanpoko funtzionamenduaren kasuan jarduteko protokoloa. Jarduteko protokolo bat eduki behar da eskura, ingurunean eragin negatibo garrantzitsuak eragin ditzaketen gorabeherak edo anomaliak gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak, gutxienez, honako gai hauek argi eta garbi zehaztu behar ditu, gerta daitekeen gorabehera edo anomalia bakoitzarentzat:

- Gerta daitekeen funtzionamendu ez-normaleko egoera.
- Ohiz kanpoko funtzionamenduko egoeraren balizko zergatiaren identifikazioa.
- Esandako egoeratik erator litekeen ingurumen-eragina.
- Esandako egoera eragozteko aurreikusitako prebentzio-neurria.
- Berehala gauzatu beharreko jarduerak ondorioak murrizteko.
- Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

c) Hondamendi naturaletan, istripu larrietan edo beste edozein gorabeheratan jarduteko. Jarduteko protokolo bat eduki behar da eskura, hondamendi naturalak, istripu larriak edo ingurumenen ondorio negatibo esanguratsuak eragin ditzakeen beste edozein gorabehera edo anomalia gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak, gutxienez, honako gai hauek argi eta garbi zehaztu behar ditu, gerta daitekeen gorabehera edo anomalia bakoitzarentzat:

- Jarraitu beharreko jarduketak, agintariei jakinarazpena helaraztea barne.
- Jarduketan segida.
- Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

B) LABURPEN EZ-TEKNIKOA

Proiektu teknikoaren eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren sintesi-dokumentua sortu beharko da, ondorioak barne, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean zein abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren, 12.2 artikuluan adierazitako ezaugarriekin.

Dokumentuan labur-labur eta jendeak ulertzeko moduan bildu beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak ekiditeko edo minimizatzekeo proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, jendeari informazioa emateko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean izan diren zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

C) APLIKATZEKO DEN LEGERIA SEKTORIALEAN EZARRITAKO BESTE DOKUMENTU BATZUK

Arestian azaldutako apartatuetan eskatutako dokumentazioa, hala badagokio, Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen IX eranskinean adierazitako berariazko alderdiekin osatu beharko da.

3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen (10/2021, abenduaren 9koa) 77. artikuluan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koa) 39.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organuari bidaliko dizkio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoak, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta sustatzaileak egindako oharren dokumentu bat, jasotako alegazio eta txostenetako ingurumen-edukiari eta kontuan hartzeko moduari dagokienez.

Dokumentazioa aurkezteko, aintzat hartuko dira xede horretarako egin diren jarraibideak. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean daude eskuragarri (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ingurumen-ebaluazioa/>), apartatu honetan: Arloak > Ingurumen-ebaluazioa > Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura izapidetza > Eskaerak aurkeztea.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Indarreko xedapenen arabera isilpekoak diren datuak dokumentu bereiz batean aurkeztuko dira. Kasu horretan, enpresa eskatzaileak argi adierazi beharko du zein informazio den isilpekoa bere iritzian eta eskaera hori justifikatzeko ondorengo datu hauek eman beharko ditu:

- Eskatzailearen aburuz isilpekotasuna zer arauditan oinarritzen den identifikatu beharko da; bai-eta dagokion agiri egiazatzailea aurkeztu ere.
- Merkataritza-sekretua denean, enpresaren barruan sekretua bermatzen duten protokoloak.

Ingurumen Batzordeak erabakiko du dokumentazioa isilpekoa den ala ez, eta agiri horiek jendaurreko informazioaren izapidetik kanpo geratuko dira.

Bigarrena. – Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentuak bi urteko epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Dokumentuak balioa galduko du epe hori igaro eta organo substantiboari aurkeztu ez bazaio ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasteko.

Hirugarrena. – Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 1a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Javier Aguirre Orcajo